



Euskara eta euskal kultura sustatzea helburu duen elkartea



Hemen zaude: Hasiera » Ingurumena » Txotx irekiera ekitaldien astea

Txotx irekiera ekitaldien astea

noa 2017-01-09 Ingurumena, Jendartea, Kultura 0 iruzkin

idatzi bilaketa irizpidea

bilatu

Eguraldia Usurbilen

Astelehena



10° 5°



15 km/h

Agenda

URT 10 ar.	18:30 Kantu Taldearen ikasturte hasiera
URT 11 az.	19:00 Usurbil Herri Anitza: batzarra
URT 14 lr.	11:00 Autobus zerbitzu bikoitza Bilbok...
URT 15 ig.	7:30 Mendi irteera: Hendaia-Hondarrib... 11:00 Munduko janarien Tipi-Tapa
URT 16 al.	18:00 Odol ematea
URT 18 az.	19:00 Sorturen birfundazioa: azken bat...
URT 19 og.	15:45 Danborradak ikastetxeetan
URT 27 ol.	20:00 Euskal presoaren eskubideen aldeko...
URT 28 lr.	19:00 Kantu-jira

Egutegia ikusi →

Komunitatea

Usurbil Gure Esku Dago 2016-11-21

2017: HERRI GALDEKETA USURBILLEN?

Erabakitzeko Eskubidearen aldeko olatu indartsu bat sortzen ari da Euskal Herrian eta



Juanjo Lertxundi 2016-10-29

Sagardo berria dastatzeko gogoz bazarete, zuen urte garai gogokoenean murgiltzera goaz. Txotx denboraldi berria estreinatzeko hitzorduen astean gara hain zuzen. Usurbilgo Udala, eta udalerria honenbestez, kide duen Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, asteazkenerako deitu du Astigarragako Sagardoetxean, txotx denboraldi berriaren irekiera ekitaldia.

Bestalde, ostegun iluntzeko 20:00etan egingo duten irekiera ekitaldi berezi baten bueltan zabalduko dute txotx denboraldi berria Saizar sagardotegian. Azken urteotan bezala, aurpegi ezagunak gonbidatuko dituzte hitzordu berezi honetara. Batetik Julen Lopetegi futbol entrenatzailea. Berea izango da, "Hau da Usurbilgo Saizar sagardo berria!" esanez sagardo berria dastatzeko ohorea izango duen lehen laguna. Ekitaldi berean, Kepa Junkerak Saizar sagardoari, danborradari eta Usurbilgo herriari eskainitako "Sagarraren Danborrada" abestia aurkeztuko da. Sorginak taldekoen dantza saioa izango da eta Andoni Egaña bertsotan ariko da, Julian lantzik aurkeztuko duen ekitaldian.

Sagardotegien irekiera

Aginaga, Usurbil eta Zubietako sagardotegiak prest ditugu ate joka dugun txotx denboraldi berriari ekiteko. Irekiera egunak finkatuak dituzte jada. Kupelak zabaltzen goiztiarrena Aginaga Sagardotegia izan genuen hilaren 5ean. Egunotan, gainerako sagardotegien txanda:

-Urtarrilak 5: Aginaga Sagardotegia.

-Urtarrilak 12, 20:00: Saizar Sagardotegia.

-Urtarrilak 14: Urdaira eta Aialde-Berri sagardotegiak.

Urtean zehar zabalik: Araeta, Arratzain eta Iruin sagardotegiak.

Erreserbak egiteko informazio gehiago: 2017ko txotx denboraldia

Txotx denboraldi berria

Urtarrilak 11, asteazkena

11:30-12:00: Komunikabideei akreditazioak emango zaizkie Sagardoetxean.

12:00: Pentsaurrekoa Sagardoetxean. Bertan 2016ko uztaren ezaugarri nagusiak, sagardo berriaren ezaugarriak eta sagardoaren munduko gertaera garrantzitsuenak aurkeztuko dira.

12:45: Eneko Atxak sagarrondo bat landatuko du Sagardoetxeako sagastian.

13:30: Txotx irekierako protokoloa Zapiain sagardotegian: txalapartarien deiarekin batera, sagar dantzak

eta sagardogileen soka dantzak Eneko Atxa kupelera gerturatuko du.

13:45: Zapiain sagardotegian “Gure Sagardo Berria” oihu eginda lehen kupela irekiko du Eneko Atxak, eta honekin batera, 2017ko txotx denboraldi berriari hasiera emango zaio. Ondoren, denboraldiko sagardotegiko lehenengo menua dastatuko da.

Arratsaldean, Txotx Berri Herrikoia 2017:

18:30: Bakailao tortila tailerra familientzat.

19:30-21:30: Pintxo eta sagardo dastaketa.

20:30: Txotx irekiera herrikoia.

Antolatzailea: Sagardoaren Lurraldea.

Urtarrilak 12, osteguna

20:00 Txotx irekiera Saizar sagardotegian.

Urtarrilak 14, larunbata

Urdaira eta Aialde-Berri sagardotegien irekiera.



Harpidetu

Albiste hau atsegin baduzu, harpidetu orain horrelako albiste gehiago jaso ahal izateko.



Utzi zure iruzkina

Zure e-posta helbidea ez da argitaratuko. Beharrezko eremuak * markatuta daude

Iruzkin

Izena *

E-posta *

ZER GALTZEKO PREST ZAUDE?

Irabazi nahi baduzu, jolastu beharra daukazu eta jolastean, galtzeko arriskua daukazu.



Sutegi Udal Liburutegia 2016-09-16

Sutegi Udal Liburutegian ere, ZUMETA BERRIKUSTEN!

Uztailaren 15etik Urriaren 16ra bitarte, Irungo



Sutegi Udal Liburutegia 2016-09-05

VIII Euskarazko literatura topaketa: Atertu arte itxaron

URRIAK 19an (asteazkena), arratsaldeko



Juanjo Lertxundi 2016-08-29

Esaldi laburra barneratzeko

” Zorionsuago izan nahi baduzu, ez zaitetz inorekin alderatu “



Juanjo Lertxundi 2016-08-19

Esaldi laburra barneratzeko

” Emozioak ez dira ukatu behar, ezagutu eta kudeatu baizik”



Sutegi Udal Liburutegia 2016-07-14

Hemen da FRESKAGARRIAK 2016!!!

Jada eskuragarri dago Buruntzaldeko Liburutegietan 2016. urteko



Sutegi Udal Liburutegia 2016-06-08

J.A. ARTZERREN UNIBERTSOA... LIBURUTEGIAN ERE IKUSGAI

Ekaina guztian zehar, Usurbilgo Potxoenea



Juanjo Lertxundi 2016-05-29

Erabaki nuen eta ikasi nuen

Eta horrela, asko itxaron ondoren, beste edozein egun baten gisako egun batean



Juanjo Lertxundi 2016-05-20

Hasiberriaren adimena

Ezagutzen dudan gizaki oro nolabait ere ni baino gehiago da. Zentzu horretan,



IKUSIENAK

BERRIENAK

IRUZKINAK

ARTXIBOA



Usurbilek jai egun berria izango du 2017an
2017ko egutegiak berrikuntzak



Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probarako izen ematea zabalik
Urtarrilaren 29an ospatuko den



GuraSOS: “Abenduaren 27an ez zen lizitaziorik izan”
Hala adierazi du GuraSOS



GuraSOS: “Erraustegia guztiz bideraezina da eta ez da gauzatuko”

Webgunea



CAPTCHA Code

*

Iruzkina bidali

« Aurrekoa

Hurrengoa »



Erraustegiaren lizitazioa bertan
behera utzi dute, epaitegiek
GuraSOsen errekurtsioa ebatzi arte

Jarrai gaitzazu

@noaua(r)en Txioak

Usurbilgo
baserriak eta baserritarrak

Usurbilgo ondarea
ezagutzen

Azken argazkiak



Albiste nabarmenduak



Erraustegiaren aurkako manifestazioa iruditan

Milaka gipuzkoar batu ditu

Erraustegiaren Aurkako



Aginaga, Tapiaren inspirazio iturri

2008ko udazkenean, erakusketa ipini
zuen Aginagako eliza zaharrean. Sei



Kantua, gabonen eta oporren abiapuntu

Gabon giroa heldu zaigu Usurbila, ohi
bezala, ikasleen eskutik. Aginagako



Udala: "Ez zuten gu argazki horretan
ateratzea nahi"

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta
Lasarte-Oria Udalak Urhil

Webmapa

- > Agenda
- > Aldizkaria
- > Argazkitegia
- > Komunitatea
- > Merkatu txikia
- > Noaua TB
- > Noaua!
- > Zorion agurrak
- > Zerbitzuak

Artxiboa

Artxiboa



Noaua Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil

Tf: 943 360 321 erredakzioa@noaua.eus

© 2017 Noaua Kultur Elkartea .

Babesleak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Salburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

Cookie-ak erabiltzen ditugu nabigazio esperientzia hobetzeko eta gure zerbitzuak eskaintzeko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, ulertuko dugu horien erabilera onartzen duzula.

Ados